

2010



2010eko Jardueren Memoria



sgiker

Ikerkuntzarako
Zerbitzu Orokorrak

Servicios Generales
de Investigación

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak - SGiker.

Ikerketako Errektoreordetza

Errektoretzaren Eraikina

Sarriena auzoa, z/g

Leioa, 48940 (Bizkaia)

Tfno. 94 601 50 50

www.ehu.es/sgiker

ESKERRAK EMATEA:

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (MICINN). FEDER eta Europako Gizarte Funtza Laguntza Programak.
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. Zientzia Politikarako Zuzendaritza.



Edukien Aurkibidea

1. Atarikoak	5
2. Antolaketa-egitura	6
3. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak zifratan	8
3.1. Erabiltzaileak eta ikerketa-taldeak	9
3.2. Egindako zerbitzuak	11
3.3. Adierazle zientifikoak	11
3.3.1. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak aipatzen dituzten zientzia argitalpenak	12
3.3.2. SGIkerren babesa doktore tesiei	13
3.3.3. Ikerketa-proiektuak	14
3.3.4. Kongresu, foro eta mintegietako presentzia	16
3.4. SGIkerren prestakuntza-eskaintza	17
3.5. Emaidza ekonomikoak	19
3.6. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak	23
3.6.1. SGIkerretako pertsonala	23
3.6.2. SGIkerretako pertsonalaren prestakuntza	25
3.6.3. Azpiegitura zientifiko-teknologikoa	25
3.7. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak komunikabideetan	27
3.8. Erabiltzaileen gogobetetasuna	29
3.8.1. Gogobetetze-inkestaren emaitzak	29
3.8.2. Gogobetetasunaren jarraipena prestakuntzan	33
4. 2010ean lortutako emaitzak	37
4.1. Mugarri aipagarriak	37
4.2. Garatutako ildo estrategikoak	37
5. 2011ko hobekuntza-jarduketak	41
I. Eranskina Baliabide zientifiko-teknologikoak	43
II. Eranskina 2011k prestakuntza-eskaintza eta 2010ean egindako ikastaroak	52
III. Eranskina Irudien zerrenda	57
IV. Eranskina Taulen zerrenda	57

1.- Atariko

SGIker, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek ikerketa babesteko gauzatutako jarduketa-lerroen deskripzioa du 2010eko Jardueren Memoria honek. Memorian, aldi jakin batean eta SGIker Unitate eta Zerbitzuetan finkatutako kudeaketa-adierazle gakoan ikuspegitik burututako ekintzak eta lortutako emaitzak daude jasota, errendimendu zientifikoan (ukigarria) eta gizartearen kultura zientifikoari egindako ekarpenean (prestakuntza) arreta berezia jarriz.



Oraingo honetan honako hauek izan dira gauzarik aipagarrienak: oro har, lehengoan jarraitu dutela erabiltzaileek eta emandako zerbitzuek, azterketa- eta ikerketa-teknika erabilgarriak gehitu eta hobetu egin direla ekipamendu berriak erosi direlako eta lehengoak eguneratu direlako eta, ondorioz, SGIker Zerbitzuetan sortutako emaitzen presentzia handitu egin dela argitalpen zientifikoetan, doktoretzetan eta masterretan eta baita ikertzaileek garatutako ikerketa-proiektuei emandako babesean ere.


Bestalde, eskainitako prestakuntza-ikastaroen bitartez lortutako emaitzek hobetzen jarraitzen dute. Horregatik, UPV/EHUkoa den edo ez den ikerketa-komunitateari laguntzeko diseinatutako ezagutza transferitzeko jardueren eskaintza ugaldtu egin da.

Antolaketa-egiturari eta kudeaketa operatiboari dagokienez, horiek ere finkatu egin dira, analisi kimikoen zerbitzuan eta emandako etengabeko prestakuntzaren kudeaketan AENOR-ek UN-EN ISO 9001:2008 araupean emandako kalitate-ziurtagiriak lortuta. Gainera, ezin gara ahaztu giza baliabideak, hau da, doktoreak, komunitate zientifikoaren zerbitzura jartzeko eta eskainitako zerbitzuen ikuspena eta hedapena hobetzeko etengabeko estrategiaz.

Azkenik, emaitza horiek ezinezkoak izango ziren SGIker proiektu bakoitzean nahasitako pertsona guztien eguneroko ahaleginik gabe, kemenik gabe eta ilusiorik gabe. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Zuzendaritzatik aholkulari zientifikoei, Unitateetako teknikariei, kudeaketako langileei eta gure egiten jakitean konfiantza jartzen duten erabiltzaileei.

2.- Antolaketa-egitura

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek honako antolaketa-egitura hau dute (1. irudia).




1. irudia. SGIkerren organigrama.

2010ean, SGIkerren lan-taldea SGIkerreko 36 teknikarik, animaliategiko erdi mailako 3 teknikarik, 2 administrazio laguntzailek, animaliategiko 4 ofizialek, animaliategiko arduradun batek, lanbide-prestakuntzako 4 teknikarik eta Zerbitzuburu batek osatzen zuten. Eskainitako jarduera eta zerbitzuen kudeaketan eta garapenean diharduten 51 lanpostu dira guztira. UPV/EHUko hiru Unibertsitate Campusetan banatutako 23 zerbitzuri eta Errektoretzaren Eraikinean (ikus II. eranskina) kokatutako Kudeaketa Unitateari atxikita daude pertsona horiek.

Zuzendaritzak, bestalde, Kalitate funtzioa SGIkerretako elementu bereizlea eta balio-sortzailea dela aitortzen du. Kudeaketa-ereduak prozesuetan oinarritutako ikuspegi bat islatzen du, bere eskakizunak beteta bezeroaren gogobetetasuna lortzeko egitura gisa.

Aipatutako prozesu-egitura 2. irudiko SGIkerren Prozesu Mapan dago islatuta, zerbitzu zientifiko-teknikoak ematen eta ezagutza zientifikoa sortzen laguntzen duten prozesu eta prozedura mailak barne hartzen dituen.



2. irudia.- SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren prozesu-mapa.

3.- Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak zifratan


Unibertsitate eta erakunde publikoetako Ikerkuntzarako Unitate eta Zerbitzu Orokorraren analisiak ikerkuntzari laguntzeko jardueren baliozkotasunari eta eraginkortasunari buruz informatzeko gai diren adierazleen zerrenda orekatua izan behar du. UPV/EHUko SGikerrek zehaztuta dituzte informazio-mota hori ematen duten eta inbertsioen errentagarritasun zientifikoa frogatzen duten hainbat adierazle:

- 3.1. Erabiltzaileak eta ikerketa-taldeak
- 3.2. Egindako zerbitzuak
- 3.3. Adierazle zientifikoak
- 3.4. SGikerren prestakuntza-eskaintza
- 3.5. Eraitza ekonomikoak
- 3.6. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak
- 3.7. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak komunikabideetan
- 3.8. Erabiltzaileen gogobetetasuna

3.1. Erabiltzaileak eta ikerketa-taldeak

UPV/EHUKo Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek bi modalitatetan sailkatzen dituzte erabiltzaileak eta ikertzaileak: barneko erabiltzailea edo instituzionala eta kanpoko erabiltzailea edo unibertsitatez kanpoko. Bi tipologia horiei dagokienez, Unitateek Unibertsitateko eta bere inguruneke ikerketa-jardueretan duten partaidetza eta babes maila ezagutzeko jarraipena egiten zaion adierazle bat barneko eta kanpoko erabiltzaile kopurua da.

2010eko ekitaldian kanpoko 165 erabiltzaileen zerbitzu-eskaera desberdinak jaso dira 2009ko 162 eskaeren ondoan (3. irudia). Erabiltzaileen leialtasun maila ez da adierazle garrantzitsua pertsona fisikoek ADN Bankuari eskatutako aitatasun-frogek hartzen duten garrantziagatik, izan ere, pertsona fisiko horiek eskatzaile berri bat dira kasu bakoitzean.



3. irudia. SGIker Unitateen kanpoko erabiltzaile kopurua 2007-2010 aldian.


Kanpoko erabiltzaile-motei dagokienez, 111 bat datoz erakunde publiko eta pribatuekin eta 54 pertsona fisikoekin. SGIkerrem kanpoko erabiltzaileen 2010eko motak eta lan-eremuak aztertzean ikusiko dugu gehienak erakunde pribatuak direla, esaterako, sozietate anonimoak eta sozietate mugatuak (62 erakunde, horietatik 4 sozietate kooperatiboak), baina beste mota bateko erakundeak ere baditugula: 22 fundazio publiko eta pribatu, 17 unibertsitate nazional eta atzerriar eta 4 ospitale. 6 ikerketa-zentro publiko eta pribatutarako egindako lanak ere nabarmendu ditzakegu.

Informazio hori 1. taulan xehatuta dago.

SGIkerren KANPOKO ERABILTZAILIAK	2009	2010
Pertsona fisikoak	48	54
Erakunde publikoak edo pribatuak	114	111
Sozietate anonimoak, mugatuak eta kooperatibak	81	62
Fundazioak	10	22
Unibertsitateak	15	17
Ospitaleak	3	4
Ikerketa-zentroak	5	6

1. taula. SGIkerren kanpoko erabiltzaileen tipologia.


Ikertzaile instituzionaletan zentratuta, SGIker Unitateek emandako zerbitzuak erabili dituzten IPV/EHUko Ikertzaile Nagusien (IN) kopuruari eutsi egin zaiola adierazi behar dugu, eskatutako zerbitzuen kopuruan nolabaiteko beherakada nabaritu den arren (ikus 3.2 atala). 4. irudian ikusten den bezala, barneko erabiltzaileen hasierako kopurua hazten joan da pixkanaka-pixkanaka, gaur egungo 240 Ikertzaile Nagusien kopurura iritsi arte (2009an 241). Kopuru zehatza ez dakigun arren, eskatzaile instituzionalen kopurua oso handia da ikerketa-talde bakoitza hainbat irakaslek eta ikertzailek osatzen dutelako.



4. irudia. SGIker Unitateen barneko erabiltzaile kopurua 2006-2010 aldian.

3.2. Egindako zerbitzuak

2010. urtean 1.502 zerbitzu egin zaizkie erabiltzaile instituzionalei eta 497 kanpoko erabiltzaileei. Horrek esan nahi du guztira eskainitako zerbitzu kopurua murriztu egin dela, hain zuzen ere % 1,4 2009arekiko. 5. irudian ikus daiteke 2010ean egindako zerbitzu kopurua eta 2006az geroztik izan duen eboluzioa. Beste datu interesgarri bat: SGikerrek 8.456 zerbitzu eskaini dituzte 2004tik aurrera.



5. irudia. SGikerrek 2006az geroztik emandako zerbitzu kopurua.

3.3. Adierazle zientifikoak

SGiker zerbitzuek funtsezko laguntza ematen diote Euskal Herriko erakunde akademiko nagusiaren barruan nahiz kanpoan garatzen den ikerkuntzari. Baina UPV/EHU da errazena lortutako emaitzak transmititzeko gehien erabiltzen diren formen bidezko ekarpena aztertzea. Modu horretan, argitalpen zientifikoek, ikerketa-proiektuek, doktore-tesiek eta SGiker Unitate eta zerbitzuetako aholkulari eta teknikariek parte hartu duten kongresu, foro eta mintegiek SGikerrek ariketa bakoitzean duten egitekoa neurtzeko garrantzi bereziko adierazleen multzoa osatzen dute.


Honako informazio-iturri hauek erabili dira datu horiek biltzeko:

- Thomson Reutersen Web of Science.
- Elsevierren Scopus.
- Zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikoak.
- Ikertu online.
- UPV/EHUren web-orri ofiziala.

3.3.1. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak aipatzen dituzten zientzia argitalpenak

SGIkerrek emandako laguntza zientifiko-teknikoa berariaz eskertzen duten argitalpen-kopuruan izandako hazkundera nabarmendu behar dugu. Ikertzaile Nagusiak zerbitzu-eskaeran finkatzeak ez ezik, euren emaitza zientifikoetan SGIker zerbitzuak aipatzeko premia erabiltzaileei transmititzeko etengabeko politikak ere eragina izan du horretan, pertsonalaren, azpiegituren eta beste baliabide zientifiko batzuen deialdi publikoetan lehia jarraitzeko aukera emango duen curriculuma sortzeko helburuarekin, agentzia ebaluatzaileek xedatutako ebaluazio-irizpideen arabera. Kultura-aldaketa horrek ahalegin eta kement handia eskatzen ditu.


Batik bat Thomson Reutersen Web of Sciencetik, Elsevierren Scopusetik eta zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikotik lortutako produkzio zientifikoko gure datu-basetik ateratako informazioaren arabera, 2005etik hasi eta 2010eko abenduaren 31ra bitartean Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak 347 artikulu zientifikotan azaldu dira, urteen arabera banatuta, 6. irudian jasota dagoen bezala. Esan beharra dago artikulu kopuruaren hazkundera horrek ez duela zertan bat etorri ikertzaileen produkzio zientifikoaren gehikuntzarekin, baina bai SGIker zerbitzuen laguntzaren berariazko aitorpenarekin.



6. irudia. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak 2005-2010 aldian berariaz aipatzen dituzten argitalpenak.


3.3.2. SGikerren babesa doktore-tesiei

SGikerrek komunitate ikertzaileari emandako zerbitzuek eta eskaintako azpiegitura zientifiko-teknologikoak UPV/EHUn irakurritako doktore-tesietan egindako ikerketan lagundu dute. Doktore-tesi horiek hazkunde handia izan dute arlo guztietan.



7. irudia. UPV/EHUn 2010ean irakurritako tesiak.

Laguntza hori esanguratsuagoa izan da Zientzia Esperimentalen eta Osasun Zientzien arloetan. 7. eta 8. irudietan ikus daitezke 2010ean irakurritako tesien banaketa ezagutza-eremuen arabera.



8. irudia. UPV/EHUn 2010ean irakurritako tesiak. Portzentajezko banaketa.

3.3.3. Ikerketa-proiektuak

2010ean, SGIkerren erabiltzaile diren Ikertzaile Nagusien multzoak eskualdeko, herrialdeko eta nazioarteko 354 ikerketa-proiektu zuzendu ditu, 2. taulan jasotako moduan banatuta. Datu horiek argi eta garbi adierazten dute SGIkerren jardueraren hazkunde kualitatiboa eta kuantitatiboa ikerkuntzari emandako laguntzari dagokionez.

IKERKETA-PROIEKTUAK	2004-2008	2009	2010
NAZIOARTEKOAK	19	10	14
NAZIONALAK	241	92	96
ESKUALDEKOAK	344	218	244
GUZTIRA	604	320	354


2. taula. SGIkerren laguntzarekin garatutako ikerketa-proiektuak.

Ikerketa estrategikoko lerro hurbilagoei arreta eskaintzeko hurbiltasunagatik eta kantitate handiagoa izateagatik eskualdeko ikerketa-deialdiek duten garrantzia kontuan hartuta, UPV/EHUtik eta, batik bat, Eusko Jaurlaritzatik hurbilago dagoen esparruko erakunde publiko eta pribatuek finantzaturako ikerketa-proiektuen nagusitasuna ikusten da. Horrek ere argi uzten du Eusko Jaurlaritzak ikerketaren aldeko apustu sendoa egin duela.

Hala ere, proiektu nazionalen presentzia ere aipatu behar dugu. Proiektu horietako askotan estatuko hainbat lurraldetako hainbat ikerketa-taldek hartzen dute parte. Bestalde, ezin dugu ahaztu oraindik txikia den baina ekitaldi honetan hazkunde oso esanguratsua izan duen konkurrentzia oso lehiakorreko sistemei dagozkien eta gure mugaz haraindiko partaidetza duten funtsekin finantzaturako nazioarteko ikerketa-proiektuen portzentajea ere.

SGIker Zerbitzuek eta Unitateek lagundutako hainbat erakundek UPV/EHUri emandako ikerketa-proiektuen kopurua irudikatzen du 9. irudiak. Irudi horretan jasotako proiektu-kopurua 636koa da. Hainbat eta hainbat kasutan zerbitzu desberdinek proiektu bera babestu izana da horren arrazoia.

Laguntza jaso duten proiektuak, zerbitzuka



9. irudia. Laguntza jaso duten ikerketa-proiektuen kopurua.

3.3.4. Kongresu, foro eta mintegietan izandako presentzia

Jardueraren balorazio ukigarria egiteko aukera ematen duten aurreko adierazleez gain, kontuan hartu behar dugu SGikerrek Sozietatean duten proiektzioa ere, batez ere hainbat hedapen-ekitalditan parte hartuta garatzen dena, esaterako, urtero azaroan hiru euskal hiriburuetan egiten den *Zientziaren Astean*. 2010ean hamargarren edizioa bete da.

2010eko ekitaldian, bestalde, zientzia-aholkulariek eta pertsonal teknikoak parte-hartze handia izan dute euren espezializazio arloetako kongresu, jardunaldi, workshop eta mintegietan, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak berariaz aipatzen duten eta euren lanen emaitzak gainerako komunitate akademiko eta zientifikoari jakinaraztea xede duten ekarpen zientifikoaren bitartez. Zentzu horretan, nabarmendu beharra dago 8 bileretatik 3 nazioartekoak direla. Horrek adierazten du han erakutsitako lanen garrantzia.

Hona hemen, ordena kronologikoan, bileren zerrenda:

- Proteonikako Ikertzaile Gazteen Bi Urtez Behingo II. Jardunaldiak, 2010eko otsailaren 11n eta 12an Kordoban egindakoak.
- Ikerkuntzako I. Jardunaldiak eta Enpresak Aurkezteko V. Jardunaldiak, 2010eko martxoaren 15etik 17ra UPV/EHuren Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Leioa, Bizkaia) egindakoak.
- USAL-CSIC minbizia ikertzeko zentroan 2010eko martxoaren 16an eta 17an Salamancan egindako Protored WG1-WG2 Meeting.
- Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitatearen Ebaluazioari buruzko VII. Foroa, 2010eko ekainaren 15etik 18ra Murtzian egindakoa.
- Programming Graphics Processing Unit with CUDA and Opencl, BULLEk antolatuta, 2010eko uztailaren 20tik 22ra Donostian egindakoa.
- Hezkuntza Berrikuntza eta Ikerkuntzako IV. Jardunaldiak, 2010eko irailaren 14ean eta 15ean Zaragozako Unibertsitatean egindakoak.
- Kristalografo Gazteen II. Bilera /IIRJCr 2010, 2010eko irailaren 29tik urriaren 1era UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (Bilbo) egindakoa.
- Graphic Documents Working Group Interling Meeting ICOM-CC. Choices in Conservation. Practice Versus Research, The Royal Library Denmark-ek antolatuta, 2010eko urriaren 6tik 8ra Kopenhagen (Danimarka) egindakoa.

3.4.- SGikerren prestakuntza-eskaintza

SGiker, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren jarduera jasotzen duen beste ardatzetako bat ezagutza prestakuntzaren bitartez transmititzea da. SGiker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek modu sistematikoan neurtu eta ebaluatzen dituzte emandako etengabeko prestakuntzaren emaitzak eta, atal honetan, 2010ean lortutako emaitzak ageri dira.


Modu gehigarrian, unibertsitateko esparru akademikotik haratago, SGikerrek Goi Mailako Prestakuntza Moduluetakoko 6 ikasle hartu dituzte 2010ean euren prestakuntza osatzeko praktikak egiteko (gutxi gorabehera 1.000 ordu eta 3 hilabeteko egonaldia).

Bestalde, SGiker Unitateetan emandako ikastaroei dagokienez, 2010ean 33 izan dira, 30 urte hasieran ezarritako prestakuntza-eskaintzakoak eta beste 3 kanpoko erakundeentzako eta Unibertsitate bereko ikerketa-taldeentzako (3. taula) "neurri" diseinatu eta emandakoak. Behar adina jendek izena ez emateagatik bertan behera utzitako ikastaro-kopurua murrizten joan da prestakuntza-eskaintza parte-hartzaileen premietara egokituta.

IKASTAROEN ESKAINTZA ETA ESKAERA	2008	2009	2010
Guztira emandako ikastaroak	18	31	33
Eskaintzako ikastaroak	15	29	30
Ikastaro bereziak	3	2	3
Eskaini eta eman ez diren ikastaroak	8 (30,8%)	5 (23,8%)	3 (18,8%)

3. taula. SGikerren prestakuntza-eskaintzako adierazle nagusiak.

2010ean emandako prestakuntzaren iraupen osoa 364 ordukoa izan zen (2009an 328 ordukoa). 331 ordu prestakuntza-eskaintzakoak dira eta 33 ikastaro berezietakoak (8. irudia). Ikasturteko emandako batez besteko ordu kopurua 11,03koa da (2009an 10,58koa).



10. irudia. 2008-2010 aldian emandako prestakuntza-orduak.

2010ean 376 pertsona prestatu dira SGikerretan irakasle, ikertzaile senior, ikertzaile junior, doktoratu aurreko ikasle eta ikertzaile eta enpresako langileen artean, modu honetan banatuta: 351 prestakuntza-eskaintzako ikastaroetan eta 25 “neurriko” prestakuntzan. Datu horiek 4. taulan daude jasota.


PARTE-HARTZAILEAK	2008	2009	2010
Parte-hartzaile kopurua	264	473	376
Eskaintzako ikastaroetakoak	252	465	351
Ikastaro berezietakoak	12	8	25

4. taula. SGikerren prestakuntza-eskaintzako parte-hartzaile kopurua.

Parte-hartzaile kopurua murriztearen arrazoi nagusia aurten “Seiurtekoak eta egiaztapenak eskatzeko adierazle bibliometrikoak nola erabili” mintegia ez ematea izan da. Mintegi hori 2009an egin zen, doanekoa izan zen eta Unibertsitateko 200 irakasle eta ikertzailek hartu zuten parte. Ikastaroa bi urtez behingoa denez, 2010ean ez da egin.

II. eranskinean dago jasota SGiker Unitateek 2010ean emandako ikastaroen laburpena eta 2011rako prestakuntza-eskaintza.

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren laguntza duten masterren banaketa



11. irudia. Masterren banaketa ezagutza arloka.

Azkenik, goiko irudian (9. irudia) ageri den bezala, SGIkerrek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute 2009/2010 biurtekoan egindako 13 masterretan. 13 master horietatik 5ek Hezkuntza Ministerioak emandako Bikaintasuneranzko Aipamena dute. Gainera, doktoregotzako 2 programatan emandako laguntza nabarmentzen da. Ikasleen jarduera horietako banaketari dagokionez, 2009/2010 biurtekoan 233 lagunek hartu dute parte eta 2010/2011 biurtekorako ikasleen parte-hartze handia espero da (225 matrikula).


3.5. Emaidza ekonomikoak

Orain arte krisi ekonomikoaren punturik sakonena izango litzatekeenean murgilduta egon arren, kanpoko fakturazioak 2009ko mailetan jarraitzen du eta hori emaitza positibo gisa interpreta daiteke ingurunearekin alderatzen badugu.

Kanpoko fakturazioagatiko diru-sarrerek iazko ekitaldiko mailan jarraitu dute, 480 mila euro inguruan. Baina proiektuen garapenerako behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak finantzatzeko ikerketa-taldeek administrazio publikoen aldetik izan duten murrizketaren ondorioz, Unibertsitateko ikertzaileentzako barneko fakturazioagatiko diru-sarrerek atzerapen handia jasan dute eta 2008ko mailan geratu dira. Emaidza horien ondorioz % 8,5 inguru murriztu da fakturazio totala (10. irudia).

2004tik 2010era fakturatutako zenbatekoa 4,4 milioi eurotik gorakoa da.

SGikerren 2006-2010 aldiko fakturazioa




12. irudia. SGikerren 2006-2010 aldiko barneko eta kanpoko fakturazioaren eta fakturazio osoaren datuak.

5. taulan ageri da merkataritzako eta ezagutza transferitzeko harreman gehienetan izan diren erakunde publiko eta pribatuen zerrenda. "Ranking" hori kanpoko fakturazioa kontuan hartuta egin da eta, kasu guztietan, urteko fakturazioak 10.000 euro gainditu ditu.

ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ZERRENDA	
1.	PROTEOMIKA, S.L.
2.	EUSKO JAURLARITZA
3.	EUSKOIKER FUNDAZIOA
4.	GRANADAKO UNIBERTSITATEA
5.	BIOEF FUNDAZIOA (BERRIKUNTZA IKERKETA OSASUNA EUSKO FUNDAZIOA)
6.	UTE DAM CRISPIJANA
7.	ABYNTEK BIOPHARMA, S.L.
8.	ZABALGARBI
9.	AIDICO (ERAIKUNTZAREN INSTITUTU TEKNOLOGIKOA)
10.	VITA AIDELOS
11.	BUNGE IBERICA S.A.
12.	RECICLADOS INTEGRALES ARGARME S.L.


5. taula. 2010eko fakturazio handieneko erakunde publiko eta pribatuak, beheranzko ordenan.

11. irudian 2006-2010 aldiko SGiker Unitateko batez besteko fakturazioaren xehetasun bat ikus daiteke. Emaiza horrek SGikerren eraginkortasun ekonomikoari buruzko informazioa ematen du. Kasu horretan, unitateko fakturazioaren batez bestekoaren beherakada ikus daiteke barneko fakturazioan. Unitateko kanpoko fakturazioak 2009ko mailan jarraitzen du.




13. irudia. Barneko eta kanpoko batez besteko fakturazioaren 2006-2010 aldiko eboluzioa, zerbitzuka.

SGiker Unitateak dauden eremuetako banaketari erreparatzen badiogu, 12. irudian nabarmen geratzen da SGikerren fakturazioaren (barnekoa eta kanpoko) portzentajea eskainitako zerbitzuen arabera.



14. irudia. SGikerren 2010eko fakturazioa, eremuka.

Emitza horiek xehetasun handiagoz aztertuta, 13. irudian dago jasota Unitate bakoitzaren barneko eta kanpoko portzentajea, Unitate batzuen eta besteen arteko fakturazio-aldeak erakusten dituena. Dibergentziak SGiker Unitate bakoitzak laguntzen dion ikerketa-proiektuen kopuruaren eta ikerketa aplikatuko jardueren zuzenki proportzionalak dira, enpresa-ehunarekin lankidetzan.




15. irudia.- SGiker Unitateen fakturazioaren %.

3.6.- Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak

3.6.1. SGikerretako pertsonala

Zuzendaritzak ezarritako estrategia nagusietako bati jarraituz, SGikerrek teknologo atxikien lantalde propioa sendotzen jarraitu du 2010ean, Europako Gizarte Funtsak finantzaturako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren programei esker eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako Zuzendaritzari esker, baliabide erabilgarriari ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko helburuarekin. SGikerretako pertsonal teknikoa positiboki ebaluatu du UPV/EHUz kanpoko deialdi nazional lehiakorretan, Eusko Jaurlaritzako (Zientzia Politikarako Zuzendaritza) funtsek eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (MICINN) finantzatuta.

14. irudian ikus daitezke SGikerrei atxikitako pertsonal kontratatuaren egungo banaketa euren egitekoaren arabera (ikus 2. atala).



16. irudia. SGikerretako pertsonalaren banaketa 2010ean.

2010eko bukaeran ebatzi da Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren Laguntzako Pertsonal teknikoa kontratatze deialdia. Aurkeztutako hiru eskaerak positiboki ebatzi dira eta 2011n gauzatu dira. Eusko Jaurlaritzak finantzatu ditu kontratuak. Honako hauek izan dira finantzaketa horren bitartez kontratatutako teknikariak:

- Alfredo Sarmiento doktorea: Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Bereziko (LASPEA) teknikaria. RAMAN zerbitzua.
- Alicia Sánchez doktorea: Arabako Unitateko Analisisien Zerbitzu Zentraleko Teknikaria.
- Azucena González doktorea: Fitotroien Zerbitzuko eta Negutegiko Teknikaria.


Gauzak horrela, SGIkerrei atxikitako lantaldea 6. taulak dioen bezala dago banatuta.

SGIkerretako PERTSONALA	2006	2007	2008	2009	2010
SGIkerretako teknikariak.	21	26	34	35	36
Animaliategiko erdi mailako teknikariak	-	-	-	-	3
Animaliategiko ofizialak	-	-	7	7	4
Animaliategiko arduraduna	-	-	1	1	1
LHko pertsonala	-	-	2	3	4
Administrari laguntzaileak	1	2	2	2	2
SGIkerretako zerbitziburua	-	-	-	-	1
SGIkerretako pertsonala guztira	22	28	46	48	51

6. taula. SGIkerretako pertsonalaren banaketa 2006-2010 aldian.

Pertsona horien egonkortasunari dagokionez, 27 lanpostuen zerrendako (UPV/EHUko lanpostuen zerrenda) plazak okupatzen dituztela, administrari laguntzaile bat karrerako funtzionarioa dela eta langileen zerrendan aurreikusitako beste lanpostu bat esleitzeko dagoela nabarmendu behar da. Gaur egun, 51 lagun horiek Administrazio eta Zerbitzuetako Langile gisako (AZP) lan-harremana dute UPV/EHUrekin eta, horregatik, SGIkerretako lantaldea, pixkanaka-pixkanaka, irudi horretara aldatzen joan da.

15. irudian jasota dagoen bezala, SGIkerrei atxikitako pertsonalaren eboluzioa SGIkerretako pertsonal teknikoaren sartzearen paraleloa da, eskaintako zerbitzuen balio erantsi nagusia dena.




17. irudia. SGIkerretako teknikari kopuruaren eboluzioa 2006-2010 aldian

3.6.2. SGIkerretako pertsonalaren prestakuntza

Zuzendaritzaren estrategien artean, oro har, SGIkerretako pertsonal guztiaren gaitasunak eta eskumenak eta, bereziki, pertsonal teknikoarenak indartzea eta maila oso lehiakorrean mantentzea dago. Prestakuntza-plan bat ezarri eta trebakuntza-ikastaroetako parte-hartzearen jarraipena egiten da. Iraupenaren, edukien eta parte-hartzearen arteko oreka lortzea da planaren xedea, SGIkerretara atxikitako pertsonalari etengabeko prestakuntzarekiko konpromisoa irakasten ahaleginduta.

Plan horren ondorioz, SGIkerretako pertsonalaren % 77k ikastaroren batean edo prestakuntza-jardueraren batean parte hartu du 2010ean. 2000n jasotako ordu kopurua % 44 hobetu da. 16. irudian ikus daiteke SGIkerretako pertsonalak jasotako prestakuntza-orduen eboluzioa. Datu hori lan egindako orduen portzentaje bihurtu da eta 2010ean lortutako maila ere ikus daiteke aurreko urteekin alderatuta.



18. irudia. SGIkerretako pertsonalak 2008-2010 aldian jasotako prestakuntza-orduak.

3.6.3. Azpiegitura zientifiko – teknologikoa

UPV/EHUK SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretatik kudeatzen duen goi mailako ekipamendu zientifiko lehiaketan parte hartu eta deialdi nazionaletan egindako eskaerak positiboki baloratu ondoren lortu da. Azpiegitura hori MICINN Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren FEDER diru-laguntzen eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren artean finantzatu dute.

SGIkerren politika, azpiegitura zientifiko-teknologikoari dagokionez, honako helburu hauetan oinarritzen da: Unitate berrien sorkuntza sustatzea, lehendik dagoen azpiegitura mantentzen eta horri balioa ematen laguntzea eta komunitate

ikertzaile eta teknologikoko kide guztiek I+G+B jarduerak ondo garatzeko ekipamendu zientifiko-teknologikoa erabilgarri izatea eta berritzea ahalbidetzea.

Nabarmentzekoak dira, beste gauza batzuen artean, Auzitegi Entomologiako Laborategi Berezi bat eraiki izana eta lehendik dauden zerbitzuak, esaterako, kromatografia likido bidezko eta gasen kromatografia bidezko analisiak, gehitu izana azken belaunaldiko teknikak aplikatzeko aukera ematen duten ekipamenduak erosita, esaterako, UHPLC eta Maldi Imaging, edo segurtasun biologikoko 3. mailako laborategi bat amaitu izana 2010ean.


UPV/EHUK SGIker azpiegitura zientifiko-teknologikoa indartu duela argi eta garbi geratzen da eskatu eta emandako laguntzen Unibertsitateko guztiekiko portzentajearen eboluzioan (7. taula).

URTEA	UPV/EHU-K ESKATUTAKOA GUZTIRA	UPV/EHU-RI EMANDAKOA GUZTIRA	SGIkerrek ESKATUTAKOA	SGIkerrei EMANDAKOA
2003	6.128.820,68	6.128.820,68	2.704.901,86	2.704.901,86
2004	6.592.538,54	6.592.538,54	5.298.159,32	5.298.159,32
2005	5.661.000,00	0,00	5.661.000,00	0,00
2006	4.580.595,00	150.000,00	4.580.595,00	150.000,00
2007	5.865.906,89	2.643.591,84	5.865.906,89	2.643.591,84
2008	4.803.606,20	3.259.791,59	3.136.141,91	1.592.327,30
2009	6.928.784,09	5.384.969,48	5.380.446,00	3.836.631,39
2010	3.230.551,04	Ebatzi gabe	2.962.248,62	Ebatzi gabe

7. taula. FEDER-EJ diru-laguntzak jasotako azpiegitura.

7. taulan, Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUri emandako kontu-sail espezifiko bat erantsi da 2009an eta 2003 eta 2004ko urtekoen eskaeren zifrak emandako zenbateko oso gisa hartu dira eskaeraren zenbateko osoaren daturik ez zegoelako.

2005ean FEDER ekipamenduaren deialdia ez zen ebatzi ezerein erakunderen alde eta 2006an, Ministerioak azpiegitura zientifikoaren deialditara zuzendutako kontu-sailak oso eskasak izan ziren. Hala ere, garrantzitsua da emakiden arrakastan izandako gehikuntza, 17. irudian ikus daitekeen bezala.



19. irudia. Kanpoko agenteek UPV/EHUri emandako laguntzak eta 2005-2009 aldian emandako laguntzen ehunekoa eskatutakoekiko.

2010. urteari erreparatuta, eskatutako laguntzak oraindik ebatzi gabe daudela adierazi behar da. Dena den, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak INNOCAMPUS Programaren barruan UPV/EHUri mailegu gisa emandako laguntzari buruzko aipamen berezia egin behar dugu eta baita Eusko Jaurlaritzak emandako funts bereziei buruzkoa ere. Kasu batean zein bestean, SGikerren instalazioak eta ekipamenduak handitzeko balioko dute, UPV/EHUren Zientzia eta Teknologia Parkean ezarriko diren Plataformetarantz hedatu ahal izateko.

3.7.- Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak komunikabideetan

SGikerrek komunikabide tradizionaletan eta elektronikoetan 2010ean izan duten presentziak gorakada txiki bat izan du, 8. taulan jasota dagoen bezala. Komunikabideetan SGikerrei buruz 2010ean jasotako albisten goiburuak ere gorde dira.

SGiker AIPATZEN DITUZTEN ALBISTEAK	2006	2007	2008	2009	2010
ALBISTEAK GUZTIRA	4	19	15	17	21
PRENTSA IDATZIA	4	16	13	14	17
TELEBISTA		2	1	2	3
IRRATIA		1	1	1	1

8. taula. 2006-2010 aldian komunikabideetan azaldutako albistek.

Prensa idatzia eta digitala

- Alga mikroskopikoen ezkatzen irudi batek Biomedikuntzako Mikroargazkigintzako II. Lehiaketa irabazi du, 2010eko urtarrilak 21, UPV/EHUko prentsa-kabinetea.
- “Baliteke denbora asko baino lehen denok izatea gure genomaren fitxa bat”, Marian Martínez de Pancorbori egindako elkarrizketa, 2010eko urtarrilak 22, Euronews.
- UPV/EHUko ikertzaileek korrokoiaren transkriptoma deskodetu dute, 2010eko urtarrilak 28, UPV/EHUko Prentsa-kabinetea.
- UPV/EHUko ikertzaileek korrokoiaren transkriptoma deskodetu dute, 2010eko urtarrilak 28, Basque Research.
- Korrokoiaren transkriptoma deskodetu du UPV/EHUko ikertzaile-talde batek. 2010eko urtarrilak 29, Basque Research.
- Delta hegal bitxi batentzako saria, 2010eko otsailak 2, 20 minutu.
- Lehiaketa zientifikoa, 2010eko otsailak 2, ADN.
- Researchers decode transcriptome for grey mullet, 2010eko martxoak 5, A Natural Cod Liver Stuff and Nonsensefrom.
- Medikuntzako aurrerapenen arrantza-tokia, 2010eko martxoak 21, Deia.
- Saiakerek funtzionatzen badute, 5 edo 10 urte barru Alzheimerra tratatu ahal izango dugu, 2010eko irailak 22, El Correo.
- UPV/EHUK bost urtetan 420 milioi inbertitza aurreikusten du bere bikaintasun-proiekturako, 2010eko urriak 27, Deia.
- Euskampusen hegoak zabaldu ditu, 2010eko azaroak 1, El Correo.
- UPV/EHUren Ikerketa Zerbitzuek kalitate-ziurtagiria lortu dute, 2010eko azaroak 25, ABC.
- Beste kalitate-ziurtagiri bat UPV/EHUrentzat, 2010eko azaroak 26, UPV/EHUko Prentsa-kabinetea.
- Kalitatezko ikerkuntza, 2010eko abenduak 8, El Mundo.
- Bioinformaticak SGikerren ADN Bankua ikuskatu du euskal leinuaren herentzia genetikoa ezagutzeko, 2010eko abenduak 29, The Medical News.
- Bioteknologia denon eskura, 2010, Diario informático mkm-pi.com.

Telebista

- Murillo Viteri botila bat Plentziako Badian, 2010eko abenduak 28, Televisión Española, Programa: Telediario.
- Genetikoki adar-gabeak., 2010eko otsailak 24, EITB, Programa: Teknopolis.
- UPV/EHUko ikerketa-talde batek Ponpeiako freskoak aztertu ditu, 2010eko ekainak 7, EITB, Programa: Teleberri.

Irratia


- Leioako UPV/EHUko Animaliategiko Gloria Leteri elkarrizketa, 2010eko martxoak 3, Radio Euskadi, Programa: Graffiti en Rojo

3.8.- Erabiltzaileen gogobetetzea

3.8.1. Gogobetetze-inkestaren emaitzak


2010. urte osoan zehar eta 2011ko urtarrilean, barneko eta kanpoko erabiltzaileek 2010ean eskainitako zerbitzuei begira duten gogobetetzea ebaluatzeko programa berri bat jarri da martxan SGIKerretan.

2006-2010 aldian, SGiker Unitateek eskainitako zerbitzuen balorazio orokorrak goranzko joera izan du (18. irudia); eta 2010. urtean lortu du, hain zuzen, erantzunik onena. 18. irudian ageri diren balioak, bestalde, inkestan eskuratutako batez besteko aritmetikoa eginda kalkulatu dira.




20. irudia. Galdetutako eremuetan eskuratutako batez besteko balorazioaren urtetik urterako joera.

Alabaina, lortutako erantzun kopuruari dagokionean, goranzko joeran inflexio-puntu bat aurkitu dugu; izan ere, 2009. urtearekin alderatuta (19. irudia), %22ko beherakada izan da erantzunetan. Dena den, 2008ko mailari eutsi egin zaio. Gertakari hau, hain justu, kontsulta-prozesua aldatzean gertatu da: orain, inkesta urte osoan dago eskuragarri, eta erabiltzaileek nahi dutenean bete dezakete.




21. irudia. Jasotako inkesta kopuruaren alderaketa.

Inkestari erantzuten dioten erabiltzaileen tipologiari dagokionean, aipatu behar dugu aurreko urteetan, kanpoko erabiltzaileek barneko erabiltzaileek baino balorazio orokor handiagoa eman zutela. Alabaina, barneko erabiltzaileen balorazioa handiagotzen hasi da, eta ondorioz, kanpoko erabiltzaileenarekin parekatzen (20. irudia).




22. irudia. Kanpoko erabiltzaileen eta UPV/EHUko erabiltzaileen gogobetetzearen eboluzioa.

Aurreko emaitzarekin batera, ohiko erabiltzaileen gogobetetzearen eboluzioa ikus daiteke; hain justu, 2010. urtean zerbitzuak aurrenekoz erabili dituzten erabiltzaileen gogobetetzearekin alderatuta (21. irudia).




23. irudia. Erabiltzaile berriek eta ohiko erabiltzaileek sortutako irudiaren eboluzio alderatua.



24. irudia. Erabiltzaileen gogobetetze maila, 2008-2010 aldian izandako erabilera-maiztasunaren arabera.

Azkenik, inkestako elementu bakoitzari begira lortutako emaitzak ageri dira irudikatuta. Galdetutako eremuetan honako hauek hartu dira aintzat: erabiltzailearekin komunikatzeko bideak; jasotako arreta; zerbitzua gauzatzeko bizkortasuna; administrazio-kudeaketa; teknikarien, tresneriaren eta azpiegituraren zientzia-kalitatea;

emaitzen erabilgarritasuna; eta aplikatutako tarifak. Inkestan bertan, bestalde, erabiltzaileak jasotako zerbitzuari ematen dion puntuazio orokorra ere aipatzen da. Eta datu horiek 2007, 2008 eta 2009ko datuekin alderatuta ere aurkezten dira (23. irudia).



* 2010. urtean inkestari gehitu zaizkion galderak.

** 2009. urtean inkestari gehitu zitzaizkion galderak.

25. irudia. Galdetutako eremu bakoitzean eskuratutako batez besteko balorazioaren eboluzioa.

Amaitzeko, “SGIker Erabiltzaileen Gogobetetzeari buruzko Txostena - 2010” memorian jasotako gogobetetze-inkestan emaitzen gaineko informazio gehigarri eta osotua ere eskuragarri dago, www.ehu.es/sgiker webgunearen bitartez.

3.8.2. Prestakuntzarekin lotutako gogobetetzeari egindako jarraipena

Prestakuntza-ikastaroei buruzko ebaluazioa egiteko, gogobetetze-inkestak bete behar dituzte parte-hartzaileek. Horiek, hain zuzen, ikastaroei jarraipena egiteko eta ikastaroak ebaluatzeko diseinatutakoak dira. 9. taulan daude bilduta, hain zuzen, parte-hartzaileek erantzundako inkestako elementuak eta euren batez besteko balorazioa.


Emaitzak gehienez ere 5 puntukoak izango dira, 8. atalean izan ezik (Iraupena). Bertan, honela aurreikusi behar da erantzuna: 1, ikastaroa oso motza izan da; 2, ikastaroaren iraupena egokia izan da; 3, ikastaroa oso luzea izan da.

GALDETUTAKO ELEMENTUAK (GEHIENEZ 5 PUNTU LOR DAITEZKE)		2008	2009	2010
1. IRAKASLEAK	Irakasleen gaikuntza eta erabilitako metodologia.	4,5	4,4	4,7
2. ERABILGARRITASUNA	Ikasitakoa berehala edo epe motzean lanpostuan aplikatzeko aukerak, eraginkortasuna hobetzen laguntzeko.	4,2	4,1	4,5
3. DOKUMENTAZIOA	Edukien zehaztasuna, ulerterraztasuna, aurkezpena.	4,3	4,2	4,3
4. TRESNERIA ZIENTIFIKOA	Tresneriaren egoera, erabilera-baldintzak, laborategiaren garbiketa.	4,5	4,2	4,6
5. BITARTEKO TEKNIKOAK	Ikus-entzunezko bitartekoak, instalazioen egoera, gelaren erosotasuna...	4,1	4,0	4,3
6. PROGRAMA BETETZEA	Zenbateraino bete den programaren helburua.	4,5	4,2	4,4
7. ANTOLAMENDUA	Ikasleentzako arreta, hedapena, ordutegiak, administrazio-kudeaketa, etab.	4,4	4,3	4,5
8. IRAUPENA	Helburua lortzeko esleitutako denboraren egokitasuna.	2,0	1,9	1,8
9. BALORAZIO OROKORRA	Ikastaroaren/jardunaldiaren balorazio orokorra.	4,4	4,2	4,4

9. taula. Prestakuntza-ekintzan parte hartu dutenek emandako batez besteko balorazioa.

Parte-hartzaileak beste pertsona bati ikastaroa egitea gomendatuko ote liokeen galderak 203 erantzun positibo eta 4 negatibo jaso zituen (hain zuzen, 3 ikastarori buruzkoak). Ikastaroa gomendatuko ez luketen ikasleek ikastaroaren edukien

antolamendu- eta plangintza-gabezia nabarmentzen zuten, eta baita praktika-orduen eskasia ere.




26. irudia. Eskainitako ikastaroen alderdi positiboaren zerrenda.

Prestakuntza-ekintza bakoitzaren ondoren egindako gogobetetze-inkestak hainbat atal izaten ditu, parte-hartzaileak modu irekian erantzun ahal izateko. Atal horiek, hain justu, ikastaroaren alderdi positiboak eta interesgarriak iritzitako hobekuntza-iradokizunak aipatzen dituzte. Galdera horien erantzunak honako irudi hauetan laburbildu dira. Ikus daitekeen bezala, prestakuntza-eskaintzari begira puntu gehien jasotako alderdiak adibide praktikoak eta laborategiko praktikak (21 parte-hartzailek identifikatua) eta irakasleak dira. Azken horri dagokionean, 15 pertsonak nabarmendu dute modu positiboan irakasleen gaitasuna eta ezagutza; 8

pertsonak horien jarrera eta hurbiltasuna; eta 9 parte-hartzailek nabarmendu dituzte irakasleak, oro har. 10 parte-hartzailek eman diote balorazio positiboa eskainitako edukien kalitateari, erabilgarritasunari eta gaurkotasunari. Era berean, aipatzekoa da ikastaroen eduki teorikoen eta alderdi praktikoaren arteko plangintza, antolamendu eta orekari emandako balorazio positiboa. Indargune horiek guztiak eta beste hainbat daude jasota 24. irudian.

Bestalde, hobekuntza-iradokizunek, batez ere, honako hauek nabarmendu dituzte: ikastaroaren helburu diren edukien behin-behineko plangintza hobetzea (18 parte-hartzailek eskatutakoa), ikastaroaren garapenean alderdi praktiko gehiago txertatzeko premia (13 parte-hartzailek eskatutakoa) eta irakastordu gehiagoko ikastaroak eskaintzeko premia (10 parte-hartzailek eskatutakoa; 7 parte-hartzailek, berriz, praktika-ordu gehiago eskatu dituzte). Hobetu beharreko puntu horiek guztiak eta beste hainbat daude jasota 25. irudian.

Hobetzeko iradokizunak



27. irudia. Eskainitako ikastaroak hobetzeko iradokizunen zerrenda.

4.- 2010ean lortutako emaitzak

4.1.- nabarmentzeko moduko mugarrak

